

PRESBIDEKO NOBEDADEAK 2018KO AZAROA

- 1- Preskripzio kronikoen eta beharraren arabera ("demanda") amaiera-data.
- 2- Beharraren arabera ("demanda") preskripzioetan berrikuspen-egunera arte zenbat ontzi dauden eskuragarri ikustea.

1. PRESKRIPZIO KRONIKOEN ETA BEHARRAREN ARABERAKOEN AMAIERA-DATA.

Tratamendu kronikoei eta beharraren arabera amaiera-data jartzeko aukera gaitu da (orain arte, amaiera-data preskripzio akutuak sortzean bakarrik egon izan da erabilgarri). Horrenbestez, preskripzio hauetarako berrikuspen-data izango dugu (nahitaezkoa) eta amaiera-data ere bai (bete daitekeena).

Aukera honen bitartez, preskripzioa automatikoki amaitu ahalko da data horretara iristean, eta horrela, ez da alferrik luzatuko beste preskripzio batzuen luzapenarekin multzokatuta.



Prescripción Hoja de Medicación

Crear Prescripción

Información de la Prescripción - Posología

Producto: 849844 - FORSTEO 20MCG/80MCL SOL INY 1PLUM PREC 3ML Contenido: 28 DOSIS

Principio Activo ATC: TERIPARATIDA Dosis: 1 (DOSIS) ~ 20 (MCG) Vía de administración: SUBCUTANEA Episodio: Hospitalización a Domicilio

Tipo: Crónica Inicio del tratamiento: 22/11/2018 Revisión: 3 Meses 19/2/2019 Finalización: 24 Meses 10/11/2020

Posología

Dosis por toma: 1 DOSIS ≈ 20 MCG

Pauta: cada 24 horas


Funtzionalitate berri honen bitartez, medikamentu batzuen fitxa teknikoak tratamendurako ezartzen duen gehieneko iraupenera egokitu ahalko da (esate baterako, bi urteko epea teriparatida-rako (Forsteo®)).

Halaber, 3 hilabetetik gorako iraupena duten preskripzio kronikoen iraupena ere ezar dezakegu (3 hilabete arterako tratamenduetarako, preskripzio akutua erabiltzen da). Hona hemen erabilera honen adibide praktiko batzuk:

- Burdina, azido folikoa, iodoa eta haurdunaldirako bitaminak.
- Antiagregazio bikoitza stent-a jarri ostean, antiagregatzaileetako batentzat urtebeteko iraupena aurreikusten denean.
- Antifungikodun tratamenduak onikomikosirako: hainbat hilabeteko iraupena.
- Biriketako tronboenbolismoaren antikoagulatzailearen tratamendua: normalean 6 hilabetekoa.
- Antibiotiko antituberkulosodun tratamendua: normalean 6 edo 9 hilabetekoa.
- IBP tratamenduak dispepsiarako eta ERGERako: 3 hilabetekoak baino gehiagokoak.
- Bisfosfonato tratamenduak: 5 urtekoak.

Amaiera-data hori geroago ezar edo alda daiteke, edozein unetan.

Fakultatiboak preskripzioa amaiera-data ezarria baino gehiago luzatu nahi badu, Presbidek ez dio utziko preskripzioa luzatzen, eta hau adieraziko dio: “berrikuspen-data ezin da izan amaiera-dataren ostekoa”.



Prescripción Hoja de Medicación

La fecha de revisión del tratamiento no puede ser posterior a la fecha de finalización

Consultar y/o modificar Prescripción

Información de la Prescripción

Conjunto DOE: 000404 - OMEPRAZOL 20MG 28 CAPSULAS Contenido: 28 CAPSULA [Cambiar Producto o Conjunto DOE](#)

Principio Activo ATC: OMEPRAZOL Dosis: 1 (CAPSULA) ~ 20 (MG) Vía de administración: ORAL Episodio: Hospitalización a Domicilio

Tipo: Crónica Inicio de tratamiento: 22/11/2018 Revisión: -- Seleccione -- 20/05/2019 Finalización: -- Seleccione -- 20/01/2019

La fecha de revisión del tratamiento no puede ser posterior a la fecha de finalización


Estado: Prescripción activa Nuevo estado: Activa Motivo cambio de estado: Modificada: 22/11/2018

EGITEKE DAUDEN ZEREGINAK

Berez, erregistratutako amaiera-data duten preskripzio hauek egiteke dauden zereginen artean agertzen jarraituko dute. Funtzionalitate horretatik kentzeko aukera aztertuko da.

2. BEHARRAREN ARABERAKO PRESKRIPZIOETAN HASIERAKO PANTAILAN IKUSTEA BERRIKUSPEN-EGUNERA ARTE ZENBAT ONTZI DAUDEN ESKURAGARRI.

Preskripzioen hasierako pantailan bistara daiteke pazienteak zenbat ontzi jaso ditzakeen gehienez une honetatik berrikuspen-egunera arte, beharraren arabeko preskripzioaren xehetasunetan sartu behar gabe.



Prescripción Universal (1) Prescripción Hospitalaria (0) Histórico Osabide-AP

Prescripciones. Se visualizan las Prescripciones que estuvieron activas en algún momento del intervalo de fechas solicitado.

<input type="checkbox"/>	Estado	Adh.	Rev/Fin	Tipo	Amb.	Producto o conjunto DOE	DOE	Princi
<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		17/05/2019	D(3)	E	Salbutamol Aldo-union 100mcg/d Aeros 200d		Salbutamol

Envases disponibles hasta la fecha de revisión

Crear Adecuación Adherencia Consultar Finalizar